

**NAFARROA BAI**

**2004KO  
HAUTESKUNDE OROKORRAK**

**PROGRAMA**

# AURKIBIDEA

## 1) ATARIKOA: NAFARROARI BAI

## 2) HELBURU OINARRIZKOAK ETA LEHENTASUNEZKOAK

- 2.1) PROIEKTU POLITIKOA
- 2.2) GIZARTE PROIEKTUA
- 2.3) BAKEGINTZA

## 3) POLITIKA SEKTORIALAK

- 3.1) ENPLEGUA ETA ELKARTASUNA
  - 3.1.1) Enplegua
  - 3.1.2) Elkartasuna eta Gizarte Politika
- 3.2) ZERGA ETA FINANTZEN ARLOKO POLITIKA
- 3.3) KULTURA, IKERKETA ETA INFORMAZIOAREN GIZARTEA
  - 3.3.1) Ikerketa
  - 3.3.2) Informazioaren gizartea
  - 3.3.3) Kultura y Euskara
  - 3.3.4) Unibertsitatea
- 3.4) AZPIEGITURAK ETA GARRAIOAK
- 3.5) LURRALDEAREN ANTOLAMENDUA, HIRIGINTZA, ETXEBIZITZA ETA INGURUMENA.
  - 3.5.1) Lurraldearen Antolamendua, Hirigintza eta Etxebizitza
  - 3.5.2) Garapen iraunkorra eta ingurumenaren babespena
- 3.6) NEKAZARITZA ETA OIHANGINTZA
- 3.7) OSASUNGINTZA
- 3.8) GIZON ETA EMAKUMEEN ARTEKO AUKERA-BERDINTASUNA
- 3.9) JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEAK
- 3.10) SISTEMA DEMOKRATIKOA HOBETZEA

## 4) NAFARROA ETA EUSKAL HERRIA EUROPAN ETA MUNDUAN.

- 4.1) LEKU BAT EUROPAKO ERAKUNDEETAN
- 4.2) BAKE POLITIKA, SEGURTASUNA ETA DESARMEA
- 4.3) LANKIDETZARAKO, ELKARTASUNERAKO ETA GARAPENERAKO POLITIKA

## 1) ATARIKOA: NAFARROARI BAI

Nafarroa ataka korapilatsuan aurkitzen da, politikari nahiz gizarteari dagokionez. Batetik, ETaren bortizkeria dugu, demokratikoki hautaturiko kargu publikoen kontrako ekintza eta mehatxuek larriagotua. Horri, azken urteetan, Estatuaren jarduera gehitu zaio, PPren eskutik eta UPN-PSOEK sostengatua. Alderdi horrek, eskubide kolektiboak eta norbanakoarenak etengabe ukatzeaz gain, errepresioari ekin dio, gero eta biziago, nortasunaren edo eskubide kolektiboen aldeko modu eta elementu guztien kontra: Euskara, Kultura, sinboloak, hedabideak, erakunde politiko eta sozialak, etab.

Nafarroan, gainera, desberdintasun sozialak nabarmenak dira: aberatsenen eta pobreenen arteko hesi gero eta handiagoa, sexu-bortizkeria, milaka adinduren bizi ankerra, laneko ezegonkortasuna, etxebizitzaren prezioa...

Nafarroak ezin du gehiago itxoin. Aralar, Eusko Alkartasuna, Eusko Alderdi Jeltzalea eta Batzarre, hau da, ibilbide eta kultura politiko ezberdinetako alderdi politikoak, egoeraz kezkatuak, elkarrekin lan egiteko prest gaude hura alda dadin. Horrexegatik aurkezten gara, Madrilgo Kongresu eta Senaturako hauteskunde orokor hauetara, koalizio honetan: NAFARROA BAI.

Ekimen honek akuilu garbia du: azken urteetan ahotsik izan ez duten milaka nafarren ordezkaria izatea Madrilgo Gorteetan. Nafarroako gizartearen zati handi baten ikuspuntuak ez dira inoiz kontuan hartzen ezta haren eskubideak errespetatzen ere; hartara, horien bozeramailea izateko sortu da koalizio hau, hondar urteetan entzunak izan ez direnak entzunak izan daitezten.

Madrilgo parlamentuan ordezkariak lortuz, koalizio honen lana izanen da jarraian aipatzen diren ildoetan eragitea. Lehen-lehenik, bakegintza eta normalizazio politikoa. Bigarrenik, Nafarroaren egungo statusa berrikustea eta Nafarroako herriaren eskubidea bermatzea harreman berriak izateko Euskadiko Erkidego Autonomoarekin eta Euskal Herriko gainerako herrialdeekin, eta orobat harreman berriak erabakitzeke Estatuarekin; horri, bestela, autodeterminazio eskubidea esaten zaio. Hirugarrenik, Espainiako Gorteetan Nafarroa abertzale, aurrerakoi eta euskaltzalearen ikuspegiak defendatzea, gizarte, ekonomia, nazioarte, hezkuntza eta kultur politikei dagokienez. Azken batez, nafar eta euskaldun garen aldetik, gure orainaren eta gure etorkizunaren alderdi funtsezkoak erabakitzen diren erakunde guztietan egon behar dugu.

Jendeak eskatu duen aukera da, indar eta ahaleginen baturatzailea, berria eta berritzailea, urratzen ari garen aro historiko berriari erantzuna ematen diona. Nafarroa ezberdin bat, pertsona guztien eskubide guztiak errespetatuko dituena, tradizio politiko guztiak eta Nafarroa sentitzeko modu guztiak bere eginen dituena, orainaz nahiz etorkizunaz guztiak guztiekin negoziatzeko lekua emanen duena. Koalizio honek, sortze beretik, bere konpromisoa aldarrikatzen du, giza-eskubideekin, zabaltasunarekin eta elkarriketarekin. Erran gabe doa bortizkera, agintekeria edo inposatze modu

guztiak bateraezinak direla printzipio hauekin eta koalizio honen arbuiorik biziena jasoko dutela beti.

NAFARROA BAIk, hemen eta kanpoan, Nafarroa berri eta alternatiboa defendatuko du: Nafarroa askotarikoa, irekia, elebiduna, aurrerakoia, gizartekoa eta solidarioa; bere euskal nortasunaz, euskal kulturaz eta euskal hizkuntzaz harro dagoena; bere eskubide historiko eta demokratikoak mantendu eta zabaldu nahi dituena; bizikidetzan bizi nahi duena.

NAFARROA BAIk eta bere hautetsiek lankidetzan iraunkor bikoitzean aritzeko hitza ematen dute: Nafarroan, pertsona, sektore eta erakunde abertzale, aurrerakoi eta euskaltzaleekin. Estatuan, kandidatura aurrerakoi eta nazioen eskubideak defendatzen dituztenekin. Gainera, lankidetzan estu eta berezia bultzatuko du Euskadiko Autonomi Erkidegoko hautetsiekin, bienak diren interesen alde, erabakitze eskubidearen alde bereziki.

Aurre egiteaz landa konpondu gabe dauden arazoei –bakea, erabakitze eskubidea, aniztasuna, bizikidetzan eta Euskal Herriko gainerako herrialdeenganako hurbilketa-, Nafarroak epe motzean dituen apostuen alde lan egingen du koalizio honek: laneko ezegonkortasuna eta siniestrabilitatea desagertzea, eta berdin gazteek eta emakumeek, kualifikazio handia ez dutenek bereziki, pairatzen duten bazterkeria; desagertzea, orobat, gure zaharretatik hainbeste milakak jasaten duen laguntza falta ankerra. Eta horiekin batera, beste hainbeste gai, hala nola garapen iraunkorra, informazioaren gizartea, Europako Batasuna, globalizazioa eta inmigrazioa, horiek guztiak demokrazia aurreratuaren printzipioetatik eta halabereko eskaintzatik abiatuta erabili nahi ditugu.

Koalizio honek ilusioa eta berotasuna piztuko du Nafarroako herritarrengan. Baina, gainera, beharrezkoa da nafar bakoitzaren lankidetzan. Gazteei eta helduei eskatzen diegu, berdin langileei, kulturagileei eta oro har gizarteko sektore guztietakoei, beren apurra egin dezatela, etxez etxe, auzoz auzo eta herriz herri, berma dezagun herritar guztien erabaki askea.

NAFARROA BAI Nafarroari bai esatea da; horra denendako etorkizuna.

## **2) HELBURU OINARRIZKOAK ETA LEHENTASUNEZKOAK**

### **2.1) Proiektu politikoa:**

NAFARROA BAIk bere gain hartzen du nafar gizartearen aniztasuna, izan aberasgarritzat hartzen du aniztasun hori. Gure koalizioarentzat, lehentasuna du aniztasun horretarako eskubide-berdintasuna defendatzeak, baita adierazpen askatasuna eta elkartzeko askatasuna defendatzeak ere, denok aukera izan dezagun ideia eta proiektu guztiak garatzeko. Hain gauza oinarrizkoa, nahitara bazter utzia dute Nafarroako indar politiko batzuek, baina are baztertuagoa dute, hamarkadaz hamarkada, mendez mende ez errateagatik, Espainian izan

diren gobernu ezberdinek. Horregatik, prest gaude Nafarroaren nortasun eta izaera bultzatzeko eta defendatzeko, baita lan egiteko ere nortasun hori eta nafarrei dagozkien eskubideak indartzearren, besteak beste eta garrantzitsuena izanik, beren etorkizuna berek modu aske eta demokratikoan erabakitzekeo eskubidea. Gure nortasunaren markak defendatzeko ditugu: Euskara, Kultura, Sinboloak, Ohiturak, etab.

NAFARROA BAIk Forua hobegotzeko omen den Amejoramentuaren egungo marko politikoa salatuko du, Nafarroari bere eskumenik garrantzitsuenak ukatzen dizkiolako. Nolanahi ere, behin eta berriz ukazio horren errudun den egungo markoari akabantza eman eta gainditzen ez dugun bitartean, exijituko dugu gure gain hartzeko lege horretan aipatu baina oraindik eman gabe dauden eskumen guztiak. Aurrean izanen gaituzte Espainiako Estatuak eskubide horiek murrizteko egiten dituen saio guztietan. Bulkada eraginkorra emanen dugu Estatuaren gaur egungo ereduak aldatzeko. Foru Komunitatearen oraingo marko politikoa nafarren zati larri bat nahitara baztertuz negoziatu eta onetsi zen, eta erreferendum baten bidez hura berresteko eskubidea ukatu zitzaion herriari. Geroago, UCD-PSOEren arteko itunek mugatu zuten eskumen maila. Bidegabekeria historiko eta demokratiko hori zuzendu beharra dago proposamen integratzaile baten bidez, gure Komunitatearen orainerako eta etorkizunerako proiektu guztien arteko bizikidetzak demokratiko eta ez baztertzailera posible izan dadin.

- Nafarren erabakimen askearen onarpena, Konstituzioaren eta Amejoramentuaren edukiak mugatua baitago gaur egun.
- Autodeterminazio eskubidearen onarpena.
- Nafar izatearen onarpena eta uniformetasunera jotzen duten interpretazioen arbuioa gureak diren eskumenez aritzeko.
- Gaur egungo marko autonomikoaren testuari atxikirik transferitu gabe dauden eduki guztien transferentzia berehalakoa eta erabatekoa.
- Delako oinarriko lege guztien erreforma edo baliogabetzea, gure diren eskumenak higatzen edo murrizten dituzten alderdietan.
- Konstituzioaren erreforma, Nafarroako Foru Komunitatearen eta Euskal Herriaren osotasunaren autogobernuaren garapena mugatzen duen guztietan.
- Konstituzio Auzitegiaren prozeduren eta osaketaren erreforma.
- Desadostasunen interpretazio politikoa, eskumen-gatazken judizializazioa saihestuz.
- Estatuaren hizkuntza ofizial guztien parekatze legekoa eta egiazkoa, erakunde esparru guztietan.

- Estaturik gabeko nazioen presentzia zuzeneko Europako erakundeetan.
- Hitzarmen Ekonomikorako, Europako Batasuneko Estatu kideen zerga-araubideei ematen zaien maila eta tratamendu bera aitortzea.

Halaber, NAFARROA BAIk lan egingen du zubi guztiak ezarri beharrez Seigarren Merindadearekin harremanak izateko. Gu bezain nafarrak izanagatik ere, administrazioek ezarritako mugak eta ez kulturak bereizi gaitu hango herritarrengandik. Muga hori behin betikoz desagertu behar litzateke.

Orobat, Nafarroa Euskal Herriko zati funtsezkotzat jotzen dugu, eta hori hala denez, eskubidea, komenientzia eta premia dugu topaguneak sustatzeko gainerako herrialdeekin, gerorrek geure kabuz erabakitzen ditugun maila, erritmo eta moduetan sustatu ere. Harreman horiek zehazteko, funtsezko adierazpidetzat jotzen dugu Autodeterminazio Eskubidea.

## 2.2) Gizarte proiektua

Gaur egungo eredu sozioekonomiko nagusiak ezaugarri hauek ditu:

- Zero defizitaren politikaren ondorioz eta, horrekin batera, errenta altuenen zuzeneko zergak apaltzearen ondorioz, gastu publikoaren portzentajea gero eta txikiagoa da Barne Produktu Gordinean; horrek nahitaez dakar Ongizatearen Estatuaren murrizketa (edo, gutxienez, haren garapen eza) eta premia-premiazko Zerbitzu Publikoen pixka-pixkanako pribatizazioa. Horra zerk eragin duen, zuzen-zuzenean, gizarte sektore behartsuenen bizi baldintzak okertzea, ez baitiete aurre egiten ahal prestazio publikoak eskuratzeko kostu gero eta handiagoei.

- Ahalegin txikiak egiten dira zerga iruzurra borrokatzeko, "merkatua dinamizatzen duen elementua" den aldetik; horrek ere kalte egiten dio Ongizatearen Estatua indartzeari.

- Laneko ezegonkortasuna handitu da, eskuratutako lan-eskubideen galera gertatzen ari da (batez ere gazteen artean) eta egiturazko langabezia sortu da, koituntura ekonomikoaren ariora aldatzen dena.

- Ezegonkortasun eta langabezia tasak emakumeen artean, gazteen artean eta sektore ezegonkortuetan nabarmentzen dira, eta neurri penagarrietaraino ailegatzen da –benetako esplotazioa- paperik gabeko etorkinen kasuan.

- Ziurgabetasun maila handiak sortu dira, kompetenziaren presio etengabearen ondorioz eta enpresa transnazionalen deslokalizazioak dakarren mehatxuaren ondorioz (horra, konparaziorako, VW-Navarrak egiten dituen

presioak, lan hitzarmenak negoziatzerakoan, "lan-kargak murrizteaz" mintzatzen direlarik).

- Mugarik gabeko hazkundearen apologia egiten da, kontuan hartu gabe ez ingurumenaren iraunkortasuna ez gutxieneko elkertasuna nazioarteko harreman ekonomikoetan (merkataritza ez parekidea, kanpo-zorra, muga itxierak hegoaldeko produktuei, etab.), horrek berez ez baitu egiturazko langabeziaren arazoa konpontzen.

- Botere publikoek eskuhartzeko gaitasuna galdu dute, ziklo ekonomiko atzerakorrei aurre egiterakoan.

Elementu horien guztien ondorioz, desberdintasun sozialak gero eta handiagoak dira eta ezegonkorturik mantentzen dira gizarteko sektore garrantzitsuak, bereziki gazteak, kualifikaziorik gabeko emakumeak, miseriako pentsioak dituzten adinduak eta etorkin superesplotatuak.

NAFARROA BAI gehiengo sozialaren eskubideen alde borrokatuko da, berdintasuna eta oinarrizko eskubideak -Osasuna, Hezkuntza, Etxebizitza, Kultura, Lana, Baliabideak, Aisialdia- bermatuko ditu eta haiek murrizteko edo pribatizatzeko saioen kontra egingen du. Halaber, sostengu emanen die gazteen arazoak konpontzeko politika berariazkoei, hezkuntzan, etxebizitzan, lan ezegonkorrean eta abarretan.

Pertsona guztiei bizi duina segurtatuko dieten gizarte politikak bultzatuko ditu: Oinarrizko Errenta, pentsio duinak, gizarte zerbitzuak eta adinduendako laguntza, guztiendako zerbitzu publikoak, eskubide berdintasuna emakumearentzat, etorkinarentzat eta beste gutxiengoentzat. Ongizatearen Estatua sendotu nahi dugu.

Arreta berezia eskatuko dugu LAN ETA GIZARTE arloan gure etorkizunerako funtsezkoak diren zenbait gairentzat, Espainiako Gobernuak haien transferentzia erabat blokeatua baitu. Zehatz-mehatz, exijituko dugu gai hauen transferentzia berehalakoa:

- Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionala.
- Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoa

Eta anitz gehiago, haiek gabe eragotzia baitugu geure neurriak hartzea enplegu egonkorraren sorrera handitzeko, gizon eta emakume aktibo eta okupatu gabeen arteko desoreka eta emakumeek soldatetan pairatzen duten diskriminazioa gainditzeko, langabezia femeninoaren eta maskulinoaren artean dagoen parekotasun eza –halako bi, emakumeen kasuan- zuzentzeko, lanaldiaren murrizketa lortzeko, lan harremanen esparru autonomoa ezartzeko, eta, azken batez, neurriak areagotzeko, Nafarroan langabeziak dituen

ezaugarrien arazo zehatzetan zuzenean eta bitartekaririk gabe eraginen luketenak.

### **2.3) BAKEGINTZA**

Bakezaletasuna politika ulertzeko modu integral baten gisara ulertzen dugu. Erabat arbuatzen dugu beste herri batzuei gerla edo eraso egitea, batik bat arrazoi geo-politiko eta ekonomiko hutsengatik egiten denean, giza eskubideak osotara zangopilatuz. Gaitzesten ditugu Espainiako Gobernuaren eskuhartze armatuak, bizi galera deitoragarriak ekartzeaz gain, mundu mailan gorrotoa eta injustizia elikatzen ari direlako, eta horrek erantzuteko ekintzak larriagotzen ahal dituelako.

NAFARROA BAIK giza eskubideen errespetua defendatuko du, salbuespenik gabe, defendatu ere bortizkeriaren erabilpenaren eta arerioaren kontrako erasoan amaiera, biktimen eta presoek eskubideak, jazarpenaren, mehatxuen eta torturen bukaera, adierazpen askatasuna eta aukera politikorako askatasuna. Bide politiko eta demokratikoen aldeko apostua egiten dugu, ideiak defendatzeko metodo gisa, eta gure herriari elkarrizketa irekitzeko bide gisa, pairatzen dugun bortizkeria egoerari akabantza eman beharrez.

Lehentasunezko xedea dugu bake zuzena lortzea eta berradiskidetze giroa sortzea, baita normalizazio demokratikoa erdieste eta gizarte haustura gainditzea ere. Haren premiak ez die lekurik uzten geroratze taktikoei, hauteskundeak direla edo beste edozein arrazoi dela. Gatazkaren iraupenak dakartzan giza sufrimenduek eta kostu sozialek behartzen gaituzte xede horri arreta presako eta berezia eskaintzera, interes alderdikoi guztiak haren menpean jarriz eta gure gain hartuz arrisku eta kostu politikoak, kasu hauetan konponbiderako edozein proposamenak berarekin ekartzen duen ika-mika ebitaezinaren ondorioz.

Azpimarratu nahi dugu gure desadostasun erabatekoa bortizkeria erabiltzeko eta giza eskubideak zanpatzeko edozein estrategiarekin.

- Saihestu behar da baldintzak jartzea, elkarrizketa hasia eragozten ahal badute, saiestu ere printzipio gaindiezinen inguruko auziak. Aldiz, elkarrizketa prozesu honetan etapak ezarri behar litateke; haieran, bortizkeria uzteak benetako negoziazioan sartzeko aukerak emanen lituzke, seinale eta konpromiso zalantza gabeak izatean prozesuaren seriotasunaren gainean .

- Prozesu horretan, diskrekzioa eta ardura oinarritzko baldintzak dira, eta guztiz desiragarria, berriz, itzal handiko bitartekaritza bat.

- Nafarroa elementu funtsezkoa da bakearen helburua lortzeko. Horretan, muga bakarra nafarren borondatearekiko begirunea da, gaur egun Foru Komunitate gisa duen egituraketaren aldaketa ekarriko lukeen edozein erabakiaz den bezainbatean.



Alde horretatik, gure iduriz, Nafarroaren partaidetza, haren erakunde eta alderdiena, giltza da bake prozesurako. Beraz, inplikazio handiagoa eskatzen diegu gainerako alderdi politikoei.

Nafarroatik, eta pentsatuz bat datorrela nafarren erabakimen librearen aldeko aldarri etengabearekin, defendatzen dugu bere erabakitzeko esparruaren onarpena, baita autodeterminazio eskubidearen onarpena ere. Gure ustez, ez dio kalterik egiten, alderantziz baizik, herritarren borondatearekiko errespetuari, hura baita herrien errespetu demokratikoaren berezko adierazpidea eta, aldiz, galarazteak halako printzipiorik ez dela baizik ez du esan nahi. Eta eskatzen dugu Nafarroatik bere apurra egin dadila printzipio demokratiko hauen errespetua exijitzerakoan, nafarrendako errespetatzea eskatzen dugun neurri berean. Hori guztia ekarpen garrantzitsua izanen litzateke une historiko korapilatsu honetan.

Nafarroa nafar gizon eta emakumeek nahi dutena izan behar da. Batzuentzat hori eslogan bat baizik ez da, baina guk egia bihurtu nahi dugu, bide demokratiko guztiak irekiz eta traba politiko eta konstituzionalak aitortuz horiek segitzen baitute eragozten, gaur egun ere, proiektu politiko guztiak gauzatu ahal izatea. Muga bakarra nafarren gehiengoaren erabaki libreak ezarri behar du.

- Beharrezkoa da bortizkeriaren arazoa eta horren gainean izan daitezkeen konponbideak alderdikieriaz instrumentalizatzea saihestea.

NAFARROA BAI ez da konpromisorik onartzera beharturik sentituko, bakebideak arakatzea tratatzeko bada. Elkarrizketa arduratsua bultzatzen ahaleginduko gara eta funtsezko arreta eskainiko diogu giza eskubideen zampaketak eragozteari.

### **3) POLITIKA SEKTORIALAK**

#### **3.1) Enplegua eta elkartasuna**

##### **3.1.1) Enplegua**

Programa honetan aipatzen diren enplegu eta elkartasun arloko politika jardunbide franko, Nafarroako Foru Komunitateak berak bideratu beharko balitu ere, hala baitago jarrita eskumenen gaur egungo banaketan, gobernu zentralak oraindik ere ez ditu bere eskutik uzten.

Erantzukizuna eta elkartasuna oinarri, NAFARROA BAIk defendituko ditu politika horiek, eta aldi berean honako hauek ere erreibindikatuko ditu:

- gizarte eta lan harremanetarako esparru politiko berria
- esparru politiko berri hori gauzatzen den bitartean, Nafarroako Foru Komunitatea izan dadila politika horiek aurrera eramanen dituen; horretarako, segitu beharko du exijitzen bete daitezela gaur egungo eskumen-banaketa eta egin gabeko transferentziak, gizarte eta lan arloan:
  - Enplegu politika eraginkorrak: lan bitartekaritza, lanaren bidezko prestakuntza, enplegua sortzeko laguntza, lantegi eskolak, enplegu zentro bereziak, enplegu lantegiak, eta abar.
  - Laneko arriskuen prebentziorako fundazioa (mutualitateen soberakinek, Nafarroan sortuak direnek, hemen gelditu behar dute eta erabili behar dira administrazioaren eta gizarte-eragileen artean adostutako ekimenetarako)
  - etengabeko prestakuntza
  - laneko ikuskatzailatza
  - Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoaren kudeaketa
  - langabeziako prestazio eta sorospenen kudeaketa

NAFARROA BAIren helburua da **enplegu beteko** egoera lortzea eta enplegu hori **kalitatezkoa izatea**. Legegintzako neurriak bultzatuko ditugu honako hauek xede:

- ezegonkortasuna deuseztatzea
- lanbidearteko gutxieneko soldata handitzea
- Plan Ausart bat bultzatzea laneko ezbeharren tasa handiari aurre egiteko
- gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna sustatzea
- arraza eta kultura aniztasuna errespetatzea lan arloan, gertatzen diren diskriminazioari aurre eginez. Halaber, ahalegin berezia egin behar da etorkinen enplegua araubideetan sartzeko, arauz kanpoko lan ezegonkor eta super esplotatzailea saihestuz.

Enplegu beteko egoera eta kalitatezko enplegua lortzeko, NAFARROA BAIk politika eraginkor espezifikoaren alde lan egingen du.

Gaur egungo egoeran, enplegua sortzeko, behar beharrezkoa da **Lana banatzea, 35 orduko lan astea finkatzea** eta birbanaketa politikak aurrera eramatea.

Enplegu politika egitekotan, funtsezkoa da kontuan hartzea **Enplegurako prestakuntza**, merkatuan sortzen diren forma eta kualifikazio berriei egokitzeko.

Era berean, beharrezkoa da, baita ere:

1. Jokatzea **dibertsifikazio** ekonomiko eta industrialaren alde, multinazional jakin batzuek eragiten duten menpekotasun ekonomikoa saihesteko.

2. Sustatzea enpresa txiki eta ertainak, **PYMEak**, eta **Elkartasunezko Gizarte Ekonomia** deritzana.

3. **Ingurumenean**, ezarritako politiken ildoan, ingurumen kalitatea berreskuratzeaz gain, orekatua eta egiazki iraunkorra izanen den garapen ekonomiko eta soziala ahalbideratu eta bultzatu nahi da, politika eraginkorren bidez. Horretaz gain, gure Komunitateko eskualde desberdinen arteko kohesioa lortzea hirien nahiz herrien ezaugarriak errespetatuz.

4. Errentaren araberako **proportzionaltasun irizpideetan oinarrituriko politika fiskala**, ereduzko Ongizate Estaturantz urratsak egiten joateko.

5. **ABLEen kontratazioetan, enplegu ezegonkor eta behin-behinekoa gutxitzen joatea, erabat desagertu arte.**

6. Enplegu plan ausart eta espezifikoa, **gazteen, emakumeen eta etorkinen alde**, horiek baitira prekarietatea gehien jasaten duten sektoreak.

7. **Lan harremanen esparrua**. Nafarroan dagoen ordezkaritza sindikala egiazki kolore askotarikoa da, baina sindikatu batzuk bazterketa politikoa jasaten ari dira, kontuan hartu gabe langileen % 30 baino gehiagoren ordezkari direla. Lanean aritu gara eta berdin jarraituko dugu, edozein motatako bazterketa ideologiko eta instituzionalik ez izateko, ez marjinezko inolako langile sektorerik edo erakunde sindikalik.

Jardun lerro guztiak baturik, gure koalizioak bultzatuko du **Enpleguari buruzko Itun** egiazko bat egin dadin, gizarte eta ekonomi eragile guztiak inplikaturik.

### 3.1.2) Elkartasuna eta Gizarte Politika

Ekonomia arloan hazteko xedeak bateragarria izan behar du justizia sozialarekin. NAFARROA BAIk proposatzen du aurre egitea eta aski da esatea

eredu neoliberal baten ondoriozko jarrera jakin batzuei, ez dutelako aintzat hartu justizia sozialaren garrantzia.

Horretaz gain, gizarte babesean kontuan hartu behar dira agertu diren arazo berri guztiak, gure inguruko gizarte guztiak jasaten ari diren aldaketaren ondorio direnak:

- populazioa zahartzea,
- familia-egitura berriak,
- enplegu eta langabezia mota berriak
- teknologia berriei ez egokitzetik datorren marjinazioa

NAFARROA BAIK bultzatuko ditu **pertsona guztien bizimodu duina bermatuko duten** politikak, eta, horregatik, exijituko dugu:

- **oinarrizko errenta bat finkatzea, estaliko dituen oinarrizko beharrak eta gizarteratzeko prozesutik datozen guztiak**
- **jende guztiak etxebizitza duina izatea, hala jabetzapekoa nola alokatua**
- **osasun laguntza unibertsaleko eredu bat izatea**
- **hezkuntza publiko eta kalitatezkoa izatea**
- **gizarte zerbitzu publiko eta kalitatezkoak izatea, adineko pertsonak duintasunez bizi ahal izateko**
- **Alarguntza-pentsioak** Lanbidearteko Gutxieneko Soldatarekin berdintzea
- Abian jartzea **Bazterketa Sozialari aurre egiteko Planak**.
- Abian jartzea **Etorkinak gizarteratzeko Plan Integralak**, etorkinen eskubideak harrerako populazioak dituenekin parekatzeko xedea izanen dutenak.
- **Konpentsatu eta apaltzea ijito jendeak gaur egun oraindik ere jasan behar izaten dituen desabantaila sozialak**
- Adimen osasunaren atentzio orokorrerako, erakunde publikoak arduratzea prebentzioaz, tratamenduaz, kontrolaz eta ebaluazioaz, zerbitzu, baliabide eta prestazioei dagokienez.
- **Normalizatzea minusbaliotasunen bat duten pertsonen egoera**, erran nahi baita, berdintasuna izatea aukeretan eta gizarte baliabideak (lana, hezkuntza, teknologia berriak, gizarte eta osasun zerbitzuak, kirola, aisia...) eta kontsumoko produktu, zerbitzu eta ondasunak eskuratzeko

orduan, eta oinarrizko eskubideen subjektu bihurtzea, gainerako herritarrak bezala.

- **Aldaketa orokorra egitea oztopo fisiko eta sentsorialen arloan gaur egun indarra duen legerian.**
- **Bikote homosexualek bikote heterosexualek dituzten eskubide berberak izatea, maila guztietan.**

### **3.2) ZERGA ETA FINANTZEN ARLOKO POLITIKA**

Jakinik Nafarroak eskumen ia erabatekoa duela zerga arloan, ohartarazi behar dugu oso garrantzitsua litzatekeela Europako Erkidegoen Justizia Auzitegiaren aurrean defentsa juridiko zuzena egin ahal izateko gaikuntza eskuratzea, Foru Komunitateari eragiten dioten afera guztietan. Gaur den egunean, Europar Batzordeak Nafarroako zerga xedapen batzuen aurkako auzi-eskeak sartuak ditu Luxemburgoko Auzitegian, baina Nafarroak ez baitu ordezkartzarik Europako erakundeetan, defentsa juridikoa Espainiako Estatuaren esku gelditzen da; alegia, oinarri-oinarrizkoa izan arren, ezin dugula geure burua zuzenean defenditzeko eskubidea baliatu Europako auzitegietan.

Beste aldetik, azpimarratu nahi dugu ezen eskumen berekia izateak erran nahi duela hura baliatzea nafar guztien mesedetan, eta ez egotea beti, gaur egungo gure gobernu dagoen bezala, gobernu zentralak hartzen dituen erabakien mendean. Autonomia fiskalak oso-osoan izan behar du.

### **3.3) KULTURA, IKERKETA ETA INFORMAZIOAREN GIZARTEA**

#### **3.3.1) Ikerketa**

Gizarte batek, berritu nahi badu bere buruari uko egin gabe, berme bakarra du: ikastea bereak dituen irizpideetan oinarriturik. Ikerketa ez baita ezagutza berria dakarren ariketa soil bat, beharrezkoa da nor bere gaitasunak aintzat eta ontzat hartzea, ezezagunari aurre egiteko. Horregatik, ikerketan aritzea, berez eta besterik gabe, ondasun bat da, eta herrialde baten aurrerapen mailaren seinalea.

NAFARROA BAIrentzat funtsezkoa da eskumen hau libreki baliatzea, nafar gizartearen garapenari eta etorkizunari begira.

**Exijitzen dugu ikerketa arloko eskumen eksklusiboa Nafarroari transferitzea, Nafarroak ezarri ahal izan dezan bere ikerketa sarea, malgua eta lehiakorra.**

### 3.3.2) Informazioaren gizartea

Informazioaren Gizartearen garapenari dagokionez, ohartu behar dugu Espainiako Estatuaren barrenean Nafarroa ez dagoela oso leku onean kokaturik. Eta Estatuak, berriz, Europako atzeratuenetakoa da. Beraz, oso urrun gaude Europan gaur egun buruan doazenengandik. Etorkizunari begira, ahalegin handia egin beharko dugu, atzerapen honetatik atera nahi badugu. Nafarroak ahalegin hori jarri behar du hurrengo 20-30 urteetarako lehentasun estrategikoen artean.

Informazioaren Gizartea, batez ere, ekonomia, gizarte eta kultura arloko eragileek, erakundeekin batera, sarean diharduten gizarte bat da. Izanez ere, Gizartearen Informazioa, gehienbat, Sare Gizarte bat da, zeinetan informazioa eta ezagutza giltzarri baitira prozesu aurreratueterako, eta balio erantsi handiko zerbitzu eta produktueterako.

Kontua ez da ordenagailuak han-hemenka jartzea, besterik gabe. Laguntza eman behar da nafar gizarteak aldaketa prozesu hau azkarrago egin dezan. Horretarako, Informazioaren Gizartearen araubidea, azpiegituren hedapena eta sustapena egin behar dira **estrategia nafar** baten ikuspegitik eta zerbitzuan, **lanean jarritik** ehun ekonomikoa, hezkuntza eta kulturaren sistema eta I + G + I baliabideak (azken horri dagokionez, lehenbailehen eskuratu behar da ikerketa arloko eskumen eksklusiboa). Nafarroa Bairen lehentasuna izanen da estrategia horretarako adostasuna lortzea.

Taldea horretatik, Nafarroa Baik honako hauek ere defendituko ditu:

- Internetera lotzeko eskubidea denendako zerbitzu egiazkoa izatea, zabalduko dena Banda Zabalaren eskuratzeko. Banda Zabalaren denentzat eta Nafarroa osoan.
- Hobetzea gaur egungo Banda Zabalaren kalitatea eta emaria, Europako txar eta garestienetakoa baita.
- Sustatzea zerbitzuen kalitatea ebaluatzeko neurri eta baliabideen garapena.
- Software librea erabiltzea erakundeetan
- Indarrik gabe uztea CD-Romen erosketak kargatzen duen kanona
- Ohartaraztea Administrazio zentralari eta foralari, operatzaileei eta fabrikatzaileei, entzun dezaten gizartearen ahotsa eskatzen duenean egin daitezkeen produktu eta zerbitzuak hizkuntza naturalak kontuan hartuz, euskaraz gure kasuan. Ohar eta eskakizun horiek bereziki software fabrikatzaileentzat eta ordenagailu nahiz sakelako telefonoetarako gaiak merkaturatzen dituztenentzat dira.

- Bultzatu eta laguntzea Interneten ezezik aplikazio informatiko eta ofimatikoetan ere euskara baliatzea bermatzen duten ekimenak, aukera ematen dutenak euskara erabilia izan dadin informazioa transmititzeko eta hartzeko.

### 3.3.3) Kultura eta Euskara

Kultura gertakari bizia da, bilakaera jasan eta eragiten duena, bera determinatzen duten eragileek aldi berean aldaketa berriak eragiten dituztelako bera osatzen duten eragileen multzoan.

Elkartasunaren baloreetan eta dibertsitatearen errespetuan oinarriturik, **kulturaniztasunaren aldeko politika** egitea da gure jomuga, Espainiako Estatuako hizkuntza eta kultura guztiak bultzatu, garatu eta defenditzen dituen.

**Gure proposamenak:**

- **Euskararen garapena bermatzea, Estatuari exijituz erabat txertatzeko Nafarroako Foru Komunitatean dituen zerbitzuetan.**
- **Exijitu Espainiako Estatuari zinez ekin diezaion, kulturaniztasun politika baten alde, Estatuako hizkuntza eta kultura guztiak bultzatu, garatu eta defendituz.**

### 3.3.4) Unibertsitatea

NAFARROA BAI Unibertsitateei buruz 2001ean onetsi zen Lege Organikoaren aurka dago, honako arrazoi hauengatik:

- Onesteko prozeduran ez zen kontuan hartu Nafarroako unibertsitate sistema eta eskumenen esparrua.
- Ez da egin unibertsitate sistemaren diagnostiko zorrotz eta sakona. Ez ditu kontuan hartzen aniztasuna eta unibertsitatearen barreneko bilbe konplexuak berezkoak dituen desberdintasunak. Ez da aintzat hartzen XXI. mendeko unibertsitateak behar duela malgua eta eraginkorra izan eta kalitatearen aldeko apustua egin behar duela erro-errotik.
- Legea sobera erregelamendugilea da, eta diseinu aldetik nahasia, eta mesfidatzen baita unibertsitateak berak duen indarrak, haren ordezkontrol mekanismo zaharrak ezarri nahi ditu.
- Unibertsitatearen autonomiari kalte egiten dio, eta ez ditu kontuan hartzen unibertsitateak egiazki dituen arazoak.

Horregatik guztiagatik, NAFARROA BAIK proposatzen du erreforma berri bat egitea, ez unibertsitatearen autonomia ezta Nafarroaren eskumenak ere mugatuko ez dituen.

### **3.4) AZPIEGITURAK ETA GARRAIOAK**

Garraiorako azpiegiturak ez dute berez garapena bultzatzen, baina beharrezkoak dira eta, batzuetan, erabakigarriak gerta daitezke, funtsezkoak baitira jarduera batzuetan, hala nola hauetan:

- jendearen joan-etorriak
- salgaien trukea
- informazio trukea

Proposatzen dugu azpiegituren sektorerako plangintza bat:

- lehenbailehen egin beharreko jarduketak bideratuko dituen, gaur egungo defizitei aurre egiteko.
- etorkizunerako ikuspegia txertatuko duena, gerorako dotazioak sortzen joateko.
- behin betikoz konponduko dituen interes orokorreko azpiegiturak finantzatzeko arazoak.
- kontuan hartuko dituen jasagarritasunaren irizpideak ingurumenari begira

### **3.5) LURRALDEAREN ANTOLAMENDUA, HIRIGINTZA, ETXEBIZITZA ETA INGURUMENA.**

#### **3.5.1) Lurraldearen antolamendua, Hirigintza eta Etxebizitza.**

Nafarroak, bere eskumenen arabera, politika propio batzuk garatzen ditu alor honetan. Funtsean foru legeetan oinarritzen da Lurraldearen Antolamenduari zein Hirigintzako Legediari dagokienez. Izan ere, erkidegoek lege eta arau berriak sortu dituzte, Konstituzio Epaitegiaren 61/1997 Epaiaz geroztik bereziki.

Hori horrela izanik ere, Estatuaren eskumenek autonomien berriazko eskurantzak mugatzen dituzte, oinarritzko legediari nagusitasuna aitortzen diotelako. Horrela bada, tokian tokiko politikak oztopatu egiten dira. **Horrexegatik, NAFARROA BAIK, lurzoruari dagokionez, estatu mailan arau berriak ezartzea proposatuko du, betiere gure legeak izatea baimenduko digutenak eta lurraldeen errealitatea aintzat hartuko dutenak, gure administrazioen jarduketetan eraginkortasuna areagotzeko.**



### 3.5.2) Garapen iraunkorra eta ingurumenaren babesa:

Bai Rio de Janeiron 1992an egin zen Lurraren goi-bileran bai haren jarraipena izan zen Johannesburgoko 2002ko Garapen Iraunkorrerako Goi-Bileran, honako auzi hauek jorratu ziren, garapen eredu bat hautatzerakoan ezinbestekoak baitira denak: pobreziaren ezabapena, ekoizpen eta kontsumo eredu eramanezinen aldaketa, natur baliabideen babesa eta kudeaketa...

Baina, Goi-bileren eta hitz pottolo horien ondoren, komeni da geure buruari galdetzea zer nolako bidea segitu nahi dugun eta konpromisoak hartzea.

Horiek horrela, beharrezko iruditzen zaigu:

1- Garapen iraunkorrari modu integralean ekitea bere hiru alderdiak kontuan hartuz: gizartea, ekonomia eta ingurumena;

2- Lehentasuna ematea Kiotoko Hitzarmenak aldaketa klimatikoaren kontra ezarritakoa betetzeari, besteak beste, ondoko neurrien bidez:

- Berotegi efektua eragiten duten gasen igorpena murriztea, energiaren gaineko politika egokiak sortuz.

- Industriako ekoizpen eta birtziklaje prozesuen hobekuntza sustatzea, energia aldetiko eraginkortasuna hobetearren, hau da, gutxiago kutsatzen duten produktuak egitera eta energia alternatiboen erabilera bultzatzera bideratzea.

- Ibilgailu pribatuen erabilera garraio publikoaren mesedera murrizteko sensibilizazio kanpainak egitea, horrek lagunduko baitu hirietako poluzioa eta kutsadura akustikoa saihesten.

- Zentral nuklear guztiak kendu, energia berriztagarriak gogotik sustatu eta pixkanaka ohiko zentral termikoak ixtea.

3- Urari buruzko politika integralak sustatzea:

- Europako Batasunaren urari buruzko Zuzentarauak zorrotz gureganatzea. Erabateko ezetza ematen diogu Espainiako zein Nafarroako Gobernuen egitate kontsumatuen politikari, Itoizko urtegiaren betetzeari dagokionez, gure ustez, Zuzentaru hori urratzen baitu alderdi batean baino gehiagotan, ingurumenerako kalte ikaragarria izateaz gain.

- Erkidegoko arroen Plan Hidrologikoak eta erkidegoen arteko eta mugaz gaindiko ur baliabideak Urari buruzko Batasuneko Zuzentaruaren menpe jartzea.

4- Zaborrak behar bezala kudeatzea, haien murriztapena, tratamendua eta berrerabilpena sustatzeko.

5- Biodibertsitatea bultzatzea, bere arlo guztietan.

6- Hiri eta lurralde mailako politika iraunkorra abian jartzea.

Abiapuntutzat hartuta ingurumena guztion eskubidea dela eta beste eskubide batzuekin erlazionatuta dagoela, iraunkortasun irizpideek eragina behar dute izan beste hainbat arlotan ere, hala nola, nekazaritza ekologikoa, turismo berdea, ingurumenaren gaineko hezkuntza, energi-eraginkortasunaren eta energia berriztagarriaren aldeko apustua, garraibide kolektiboek sustapena pribatuen kalterako, lankidetzak eta elkartasuna... Hau da, ekonomia eta ekologia bateraezinak ez direlako eta bestelako globalizazio justu eta solidarioagoa bilatzen dugulako.

### 3.6) NEKAZARITZA ETA OIHANGINTZA

Nafarroako nekazaritza, Europako Batasunean sartzeko negoziazio urriaren ondorioz, krisi batean hondoratu da. Izan ere, biztanleria zahartzen ari da, ez dago lanbidea belaunaldiz belaunaldi igarotzeko pizgarririk, etab.

Nekazaritzako arloak ilusioa behar du berreskuratu ondoko bidez: gaztetasuna areagotzea, kalitateko produktuen ekoizpena bermatzea, herri hirietako ekipamendu eta zerbitzu antzekoak eskaintzea eta jarduera erakargarri bihurtzea, dirusarrerak eta bizi-kalitatea bermatuz.

NAFARROA BAIren ustez, nekazaritzak abeltzaintzak eta oihangintzak segitu behar dute landa ekonomiaren zutabe inportante bat izaten, eta ahal izanez gero, haren ustiapena familiarra behar du izan eta sistema hori lotu industria eta zerbitzuetako enpresa txiki eta ertainen sorrerarekin.

Eginkizun ekonomikoez gainera, landa eremuek honako honetarako bidea ematen dute:

- Elikagaien hornidura bermatzea.
- Lehengai berriztagarriak.
- Paisaiari dagokion ondarea zaintzea.
- Baloreak, tradizioak eta kulturak transmititzea.
- Lurzorua, ura, airea eta abar mantentzeko eginkizun ekologikoa.

Ekonomia, gizartea eta kultur arloetako eginkizun hauek ikusita, bidezkoa da haien garapena sustatu eta iraupena bermatzea. Horregatik, NAFARROA BAIk neurri hauek proposatzen ditu:

- **Laguntzen politikari eustea dirusarrera duinak bermatzeko, betiere, muga bat jarritz ustiategi bakoitzeko kobratzen ahal den laguntzari. Zenbatekoa lotua egonen litzateke enplegu sorrerarekin eta teknika ekologikoen erabilpenarekin.** Laguntzak egokitu behar dira gehieneko zenbatekoak finkatzeko faktore batzuetatik abiatuta. Alde horretatik, arauak moldatu behar dira nagusiki nekazariak

direnendako laguntzei lehentasuna ematearren edota desintentsifikazioa helburu duten edo modelo estentsiboagoak aplikatzera eramaten duten inbertsioei. Halaber, sektoreen arteko dibertsifikaziora bideratutakoei.

- Gazte nekazariendako laguntzen kontzeptua berritzea guztiz. Formula edo kontzeptu egingarrietara bideratu behar dira, esate baterako, aldi baterako elkarketetara etor litezkeen nekazari gazte berrien eta jadanik instalatuta dauden nekazarien artean. Era berean, ezinbestekoa da, gazteak instalatzeko laguntzen bide berri honetan, ustiategiak pixkanaka jartzea, bai eta horretarako bultzada eman ere, gaur egun ez bezala.
- **Landa-munduaren garapen erabatekoa sustatzea.**
- **Ingurumenari eta ekologiari dagokienez, teknika berriak bultzatzea kalitateko produktuak lortzeari begira. Halaber, zer gerta ere, bost urtean, moratoria bat ezarri behar da genetikoki eraldatutako animalia eta landareetatik eratorritako organismoak saihesteko.**
- **Gutxi erabili edo utzitako lurak ustiatzea. Horretarako, komenigarria litzateke erakunde bat sortzea (Lur Bankua) lurren ustiapena erosi, trukatu, eskuratu edo errenta bidez lagatzeko instituzioei eta partikularrei.**
- **Esne-gintzari egin zaion bidegabekeria zuzentzea, esne-kuota gutxienez ere kontsumoaren pareko mailara igoz.**
- **Gure produktuen kontsumoa sustatzea eta horretan eragitea desberdintze eta identifikatze politikekin, betiere lurraldetasun kontzeptutik abiatuta (J.D., Adierazpen Geografiko Babestuak, labela...), eta haien kudeaketa zuzena bilatuz.**
- **Gizarte Segurantzak eskaintzen dituen araubide eta alor guztietako prestazioak parekatzea.**
- **Politika adostea bai sindikatuekin bai nekazaritzako erakunde nagusiekin.**

### 3.7) OSASUNGINTZA

NAFARROA BAIIn iruditzen zaigu herritar guztien osasuna babestu eta sustatu behar dela, haien eskubidea da eta. Horregatik, lanean segituko dugu osasun sistemaren unibertsaltasun, elkartasun eta ekitate printzipio oinarrikoak bermatu eta zerbitzuaren giza kalitatea zein teknikoa eta herritarren parte hartzea hobetzeko asmoz.

Barne Osasungintzari buruzko Estatuaren oinarriko legea zabal garatu da. Hartan Nafarroako Foru Komunitatearen eskumenak nabarmen mugatu

direnez, ekimenak aurkeztu eta defendatuko ditugu, ondoko gaietako erabateko eskumena aldarrikatzeko:

- **Osasunbidearen osasun prestazioak baimentzea.**
- **Langileen estatutu markoa, benetako beharrak kontuan hartuta.**
- **Lan Osasuna, osasun publiko integralaren osagai gisa.**

### **3.8) GIZON ETA EMAKUMEEN ARTEKO AUKERA-BERDINTASUNA**

NAFARROA BAIk bere egiten ditu gizon eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna lortzeko oztopoak gainditu eta berdintasun hori lortzea helburu duten jarduketan defentsa eta sustapena, oinarri hori agindu politiko eta demokratiko eginik, Emakumei buruzko Munduko IV. Biltzarrean (Pekin, 1995) eta Europako Batasuneko Berdinketarako programetan ezarritakoaren harira.

Ekonomiaren eta gizartearen bilakaera aintzat hartuko duten estrategiak prestatu behar dira, betiere, familien egituretan gertatutako aldaketekin eta gizonezkoek eta emakumezkoek gizartean eta lan-munduan duten eginkizunarekin bat. Horietarako, hona, elkar loturik, NAFARROA BAIren proposamenak:

- **Gizon eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna sustatzeko legeak eta plan integralak egitea eta, halaber, behar adina diru erabiltzea helburu horretarako.**
- **Bazterkeriaren kontra aritu, emakumeen ordezkariak eskasa handitzeko ekintzei laguntza eman eta pobrezia eta feminizazioaren kontra borrokatzea.**
- **“Lan bera, lansari bera” irizpidea aplikatzea.**
- **Enpresarioen artean emakumezkoen presentzia bultzatzea, bai eta negozio kolektiboko mahaietan haien parte hartzea ere.**
- **Lan hitzarmen orokorrak berraztertzea, bazterkeria, emakumeak lanpostu bat lortzeko oztopo inplizitua edo lansarietako diferentziak sor ditzaketen klausulak ezabatzeari begira.**
- **Gizonek eta emakumeek lana eta familia bizimodua bateratzea**

**Gizon eta emakumeen arteko erantzukizun banaketak honako hau eskatzen du:**

- 0-3 urte bitarteko haurrendako eskola nahikoak egon, zaharrendako laguntza eta lana eta familia elkar sendotzeko behar adina azpiegitura soziala eskaintzea.
- Gizonek familia egin beharretan parte hartzea. Izan ere, konpartitzearen balorea bere egin behar dute.
- Amatasun laguntzak.
- Etxekoandreen lana aitortzea.
- Erabakiak hartzen parte hartzea:
  - Parte hartzea eragozten duten oztopoak ezabatuz.
  - Emakumezkoen buruzagitza sustatuz.
- Giza eskubideak babestea:
  - Emakumeen kontrako bazterkeria eta bortizkeria bide guztiak ezabatuz, bai bizitza publikoan bai pribatuan.
  - Administrazio baliabideak zein zuzenbide, gizarte, hezkuntza eta osasun arloetako laguntza indartuz.
  - Metodo antikonzeptibo guztien doakotasuna bermatuz.
  - Etorrin eta gutxiengo etnikoetako emakumeei zuzendutako integrazio eta laguntza programen bidez.

Orobat, NAFARROA BAIk sexu bereko herritarren arteko harremanei gainerakoei aitortzen zaizkien eskubide berberak aitortzeko neurriak bultzatuko ditu. Hortaz, penagarri deritzogu Bikote egonkorrentzako berdintasun juridikoari buruzko uztailaren 3ko 6/2000 Foru Legearen kontra PPko 50 diputatuk aurkeztutako helegiteari.

### **3.9) JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEAK**

Justiziaren jatorria herria bada, Botere Judizialak zentzua izanen du soilik, Estatuaren gainerako botereen gisara, eta zerbitzu publikoa den heinean, herritarrendako zerbitzu bezala ulertuta, horiek beren subiranotasun demokratikoa erabiltzeko bidea baitute botere publikoa. Ideia hori begien bistakoa da zuzenbideko estatu sozial eta demokratiko batean.

NAFARROA BAIk justizia autonomia eta deszentralizatu aldarrikatzen du, ez "Nafarroan" baizik eta "Nafarroarena", hau da, ez du justizia zentralizatu bat besterik gabe autonomizatu nahi.

Era berean, Nafarroako Foru Komunitateko espetxeen berehalako transferentzia eskatzen dugu.

Beraz, NAFARROA BAIk ondoko neurriak proposatzen ditu:

#### I.- JUSTIZIA AUTONOMOA

- **Justizia Administrazioaren zerbitzuko Kidego Nazionalak kentzea.**
- **Justizia Administrazioaren zerbitzuko langile horiek guztiak deszentralizatzea.**
- **Administrazio autonomoaren esku uztea erabat ondokoen erregulazioa:**
  - Lanpostuen hautapena, zerrendak eta balorazioa (hizkuntza eskakizunak finkatzea), ordainsariak, etab.

#### II.- JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREN EUSKALDUNTZEA

- **Epaitegi eta Auzitegietan euskararen erabilera sustatzea, justizia guztiz elebiduna lortzearren.**
- **Bai epaileak bai Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileak euskara ikastera bultzatzea.**
- **Justizia Administrazioari dagokionez, hizkuntza normalizazioari buruzko plangintza egitea.**

#### III- GIZA ESKUBIDEAK BERMATZEA

Giza eskubideak errespetatu eta betetze aldera, NAFARROA BAIk hauxe proposatzen du:

- **Edozein bortizkeria motak eragindako biktimendako errekonozimendu soziala eta, ahal den neurrian, ordainen bat bilatzea.**
- **Presoen eskubideen aitortza.**
- **Norbanakoen eta taldeen giza eskubideak betearazteko eta haien eskubideak eta bermeak finkatzeko, apostu nagusi gisa, ezinbestekoa da ondokoen aplikazioa bermatzea: Giza Eskubideen**

**Deklarazio Unibertsala eta nazioarte mailan sinatutako hitzarmen eta itun indardun guztiak.**

- **Delituen biktimendako laguntza sendotzea, zerbitzu integral gisa eta berme juridiko, sanitario, terapeutiko eta abarrekin, batez ere, arrisku handiko taldeen kasuetan, esate baterako emakumeak, adingabeak...**
- **Bake-bidean aurrera egitea, ETA, GAL eta giza eskubideak urratzen dituzten gainerakoek ekintzen egia historikoa argituz.**

### **3.10 SISTEMA DEMOKRATIKOA HOBETZEA**

**NAFARROA BAIko kideok uste dugu sistema demokratikoa hobetu eta zabaldu beharra dagoela, jendearen parte hartzea indartzeko.**

Hortaz, Estatuaren eskumenak eskatu beharra dago, ondokoak ahalbidetzeko:

- Nafarroak aukera izan dezan **erreferendumak deitzeko**, kontsultarako zein lotesleak izan, erkidegorako garrantzi berezia duten erabaki politikoei buruz.
- Tokian tokiko **herri-kontsulten** emaitza loteslea izateko, bai eta kontsultarako erreferenduma ere, Konstituzioaren 92. artikulua arautzen baitu.
- Toki administrazioko erakundeek, Nafarroakoek eta estatukoek herri kontsulta, kontsultarako erreferenduma edo erreferendum loteslea deitu behar izateko, herritarren parte batek (% 10ak) hala eskatzen duenean herritarrendako garrantzi bizia duten gaiei buruzko erabakiak hartzeko.
- Estatuaren baimena ezinbestekoa izan ez dadin tokian tokiko edo Nafarroaren esparruetako erreferendumak edo herri-kontsultak deitzeko. Alkateari edo autonomiako lehendakariari aitortu behar zaio ahalmen hori, herritarren ekimenak sustatzen duenean izan ezik, halakoetan ezinbestez egin beharko baita deia, legez erabakietako kasuetan salbu.
- **Hauteskunde legeak** aldatzeko, hots, foru hauteskundeetan botoen % 3 behar ez izateko ordezkariak lortzeko, ezta udalekoetan botoen % 5 ere. Proporzionaltasun zorrotza gorde beharra dago, boto orok balio bera izan dezan.
- **Zerrenda irekiak** hauteskundeetarako.
- **Herritarren partaidetza duten aurrekontuak** bultzatzeko udal kudeaketan, eta gizartearen parte hartzea indartzeko Foru Komunitateko kudeaketan.
- Legea aldatzeko etorkinen hauteskunde-eskubideen alde, hau da, eskubideak nahiz betebeharrak arautzearen.

Era berean, politikan jarduteko kodea behar dela uste dugu, ondokoak bermatzeko:

- **Informazioa eta gardentasuna**, egungo ilunpearen aurka.

- Eskuzabaltasuna, altruismoa eta austeritatea bultzatzea jardunbide politikoan.
- **Alderdi politikoan baitako demokrazia indartzea**, barne jardunbidean nahiz hautesleekiko harremanetan: bitartekoak ahalbidetzea informazioa trukatu, erabakiak hartu, kontrola egin eta iritzia emateko, kideen nahiz hautesleen artean kontsultak edo inkestak eginez horretarako, eta gizarte taldeekin hartu-eman jorietarako bideak irekiz.

#### **4) NAFARROA ETA EUSKAL HERRIA EUROPAN ETA MUNDUAN.**

##### **4.1) LEKU BAT EUROPAKO ERAKUNDEETAN**

NAFARROA BAI europazale sutsua da eta konpromiso sendoa aldarrikatu nahi du Europako Batasuna eraikitzekeko proiektuarekin. Baina proiektu politiko horrek Herrien Europa behar du oinarri, herritarren eskubide nahiz askatasunekiko begirune osoa erakutsi behar du eta Europako herriek osatua behar du izan, nor bere ordezkari propioak izateko bere etorkizun kolektiboa erabakitzeke.

Europako Batasunaren egungo proiektuak Estatuon Europa du oinarri. Estatuaitortua duten herriek baino ez dute hitz eta boto eskubidea Europako Batasunean beren interesak defendatzeko. Horrenbestez, bigarren mailan gelditu dira beste hainbat herri, are beren autogobernuaren esparruan legegintzarako eskumenak dituztenak ere, Estatu propioirik aitortu ez zaielako. Europako Konstituzioak ez du aldaketarik ekarriko arlo horretan.

NAFARROA BAIk arlo horiek landuko ditu, eta Europako erakundeon egitura taxutzea programa honen xedetik kanpo egon arren, honelakoa behar du izan, gure ustez:

- a) Legegintzako boterea: eskumen osoak legegintzarako, aurrekontuetarako eta kontrolerako, bi ganbaratan egituraturik; Europako Parlamentua eta bigarren ganbara bat, Batasuneko Nazio guztien ordezkariak osatua.
- b) Botere betearazlea: Batzorde bat –gubernua- gehiengo politiko arduratsu batek sostengatua.
- c) Botere judiziala: askea erabat, menpekotzarik gabea, eta Batasuneko zuzenbidea Europako Batasun osoan modu berean interpretatuko dela bermatuko duena.

Nola nahi den ere, aurreko xedeak lortzeko trabak Madrilen eta Parisen daude oraindik ere, Bruselan baino gehiago.

Ondoko aldaketak eskatu behar ditugu, presa handikoak direlako:

- Ordezkaritza zuzena Europako Batasuneko organoetan, Nafarroako eskumenak ukitzen dituzten gaiak eztabaidatzen direnean.
  - Europako Batasuneko Ministroen Kontseiluko lantaldeak.
  - Organoak, justiziako eta barne saileko gaietarako buruzkoak.



- Ministroen Kontseiluko osoko bilkura.
- Gobernuarteko Biltzarrak itunak aldatzeko.
- Defentsa juridikorako gaitasuna, bai Batzordearen aurrean bai Europako Batasuneko Justizia Epaitegiaren aurrean, Nafarroa zuzenean jotzen duten aferetan.
- Parte hartze zuzena programak eta proiektuak aurkeztu nahiz tramitatzerakoan, laguntza, egiturazko fondo, kohesio fondo eta antzekoak bideratzeko.
- Erabateko eskumena arlo propioak ukitzen dituzten arau komunitarioak betearazteko.
- Europako Parlamenturako hauteskunde-legea aldatzea euskal barrutia ezartzeko.
- Nafarroako Parlamentuaren eta Europako Parlamentuaren arteko harremanetarako bitartekoak eratzea bi ganbaren eskumeneko arloetarako.
- Eskualdeetarako Lantaldeko ordezkari sistema hobetzea, Estatuaren azpitik ondo-ondotik heldu den mailako hautetsiek soilik osaturik egon behar baitu.

#### **4.2) BAKE POLITIKA, SEGURTASUNA ETA DESARMEA**

Aurreko hamarkadetako mugimendu bakezaleak –eta azpimarratzekoa da Nafarroako intsumisoen mugimendua, derrigorrezko zerbitzu militarren aurkakoa- militarismoaren aurkako jarrera tinkoetan erroturik daude, eta gero eta indar handiagoa lortu dute batez ere kontzientzia berri batek indartu dituelako: teknologia militar berriak ekarritako hondamendi itzelek sortarazitako kontzientzia. Antimilitarismoa izan da Europan bakearen aldeko mugimenduen eragile nagusia. Gure herriko autodeterminazioaren aldeko borrokak nazioarteari loturiko alderdi banaezinak ere baditu, autogobernuaren aldeko gure borrokaren azken xedea bat etorri baitzen bakearen aldeko mugimenduen helburu nagusiekin: aniztasunean batuko den mundu geldiezina. Horrela, bada, NAFARROA BAIK ondokoak ditu oinarri nazioarteko politikagintzan:

- Giza eskubideen bermea eta komunitate nazionalen eskubideen bermea.
- Lankidetzaren bultzatzea, gatazkak trabaturiko politikaren ordezkari lankidetzaren nagusitzeko.
- Segurtasun politika senezko bat garatzea, armadarik gabeko mundu utopikoa helburu: gizakion zorientasunari atxikitako nahia dugu hori, helmuga bazterrezina. Jardun militaristek kostu latzak eta giza kalte itzelak ekarri dituzte, eta agerian utzi dute, besteak beste, gaitasun militarra duenak modu arbitrarioan erabiltzen duela indar hori; erran nahi baita, zailtasunak aitortuta ere, bide ez militarrik bilatu behar direla aurrera egiteko, arrazoi etikoez gain, ezinbertzekoak ditugulako epe motzean nahiz ertainean, gerraren ohiko bideek hondamendi itzelezkoak sortzen dituztelako.
- Europako Batasunaren prozesu politikoa bultzatzea, munduan justizia, bakea eta oreka areagotzeko bidea izan dadin.

- Disuasio armatuaren teoriari ezetz erratea, Nazioarteko komunitateak neurri diplomatiko eta ekonomikoak erabiltzen ahal dituelako presio gisa. Hasteko, kontrol etengabea eta zorrotza egin behar zaio bai armagintzari bai armen salerosketari giza eskubideak urratzen direnean edo eskualdeko gatazkak pizteko arriskua dagoenean, eta kontrola egin behar zaie, orobat, segurtasuneko transferentzia militar nahiz polizialei.
- Enpresek jokabide kode bat onar dezaten sustatzea, batez ere nazioartean jarduten dutenek, beren jardura guztietan giza eskubideak balioetsi eta errespetatu ditzaten.
- Heriotza-zigorren abolizioaren aldeko jardun tinkoa.
- Nazio Batuek esku hartze humanitariorako eskubidea aitortzea.
- Emakumeen giza eskubideak babestea, Beijingo plataformaren gomendikoak betez mutilazio genitalaren kasuak aztertzeko konpromisoari dagokionez, besteak beste; asiloari buruzko legeetan, berriz, generoan oinarrituriko jazarpenak arrazoi nahikoa behar du izan errefuxiatu izaera aitortzeko edozein emakumeri.
- Batasunaren zabaltzeari begira, Europako Ekialdeko nazio berrien autodeterminazio eskubidea aitortzea, Europa Ekialdeko herriekiko lankidetzak eta giza eskubideekiko begirunea ezinbesteko osagarriak dira bake nahiz segurtasun iraunkorrak erdiesteko.
- Herrien zapalkuntzak edo okupazioak geldiaraztea, bai eta haien determinazio librerako eskubidearen ukazioa dakarten egoerak ere, eta batik bat, Espainiako Estatuaren afera den heinean, Nazio Batuen bake plana betearaztea Saharan, autodeterminazioari buruzko erreferenduma askatasun erabatekoan egin ahal izateko.
- Gastu militarra murriztea eta uko egitea jardunbide militarista oinarri duen eraberritze teknologikoari.
- Arma nuklearrak desagitea eta ezetz erabatekoa erratea azken saiakera atomikoei, erabat geldiarazteko eskatuz.
- Arma kimikoen debeku erabatekoa mundu osoan.
- **Bardeako** tiro-eremua desagertaraztea, baita Aitzoingo kuartel militarra ere.
- **Mundu osoko desmilitarizazioaren** aldeko apustua mundu osoan, eta aurrekontu militarra gizarte gastuetarako nahiz nazioarteko elkartasunerako erabiltzea.
- Erabilera militar eta poliziala duten eremuak berreskuratzea, gizarte arloetan erabiltzeko; lurraldearen desmilitarizazioa.
- Alderdi militar ororen aurkako **desobedientzia zibileko** politikak laguntzea.
- **Gastu militarren aurkako desobedientzia eta boikot** politikak (eragozpen fiskala), erakundeen aldetik eta norbanakoen aldetik.
- Nazioarteko egitura militarren aurkako kanpainak laguntzea, NATO, UEO, Europol eta abar, bai eta esku hartze militar neokolonialen aurkakoak ere.
- **Nafarroako airea nahiz lurra gerretan erabiltzeko debekua** aldarrikatzea, eta gure egitea horrek beste Estaturekin ekar lezakeen eskumen-gatazka.

- **Gerra desertore eta errefuxiatuak elkartasunez hartzea,** etorkinen aldeko politika zabalago baten baitan.
- Gerren aurkako ikerketa zentroak laguntzea eta Bakerako eta Garapenerako Hezkuntza sustatzea.

#### 4.3) LANKIDETZARAKO, ELKARTASUNERAKO ETA GARAPENERAKO POLITIKA

Nazioarteko lankidetzak, justiziak eta elkartasunak, giza eskubideen defentsarekin eta sustapenarekin batera, gure nazioarteko politikaren ardatza behar dute izan.

Herrialde pobretuekiko elkartasuna bideratzeko politikaren oinarriak jarri behar dira nazioartean. Hortaz, NAFARROA BAIk ondoko ekimenak babestuko ditu: kanpoko zorraren abolizioaren aldekoak; elikadura laguntzarako politikaren aldaketa; Europako nekazaritza politika eraberritzea bai eta nekazaritza gaien nazioarteko trukearena ere; naturguneen babes eta oreka ekologikoa; legeak zorroztea, herrialde industrializatuek gai toxikoak isur ez ditzaten hegoaldeko herrialdeetan; eta jokabide kode bat onartzea enpresa multinazional handiendako.

Garapenerako Lankidetz Plan bat abiarazi beharra dago, laguntzetarako programa bat taxutuz eta helburua izanik urteko BPGren % 0,7, gutxienez, erabiltzea lankidetzarako.

Konpromisoak betetzeko eskatu behar zaio Estatuari, ez bakarrik laguntzaren kopuruari dagokionez baizik eta printzipioei doakienez ere, lankidetzarako eta garapenerako politika benetako helburuetara bideratzeko.

Garapenerako politikaren esparruan ezin da gutxietsi munduko merkataritza trukeak duen berebiziko garrantzia. Parte hartzaile guztiek ez dute ez indar ez botere bera munduko merkataritzaren jardunean. Munduko merkataritzak ondorio handiak ditu justizia sozialean bai nazioen baitakoan bai nazioartekoan. Eztabaida piztu da erabakitzeke zer neurri sozial behar diren merkataritzaren ondorioak arintzeko. Nazioarteko lehia izugarri zorrotza denez, munduko hainbat eskualdetan areagotu egin da langileen esplotazioa eta baldintza oso latzetan ari dira lanean. Garapen bidean diren herrialdeen ekonomiak hobetu ahala, hazkunde material hori aurrerapen sozial bihurtu beharra dago. Ildo horretan, mundu garatuak lankidetz eta pizgarriak eskaini behar ditu garapen urriko herrialdeetako aurrerapen soziala ahalbidetzeko.

Era berean, konpromisoa hartzen dugu munduko egitura finantzarioari buruzko kanpaina komunak lagundu eta bultzatzeko, hala nola, garapen urriko herrialdeen zorra abolitzeko, enpresen erantzukizunari buruzkoak, kapitalen transferentzia espekulatiboen gaineko tasak (Tobin tasa), munduko ezberdintasunen zergatiak eta ondorioak salatzeke laguntza politikoa, giza garapen iraunkorreko proiektuendako laguntza, bidezko merkataritza, nazioarteko hainbat erakunde desagertarazteko edo errotoaldarazteko (MB,

NMF, MME, Parisko taldea, etab.), dirutza handien ondasunen gaineko zerga berezia, bakearen dibidendua, zor ekologikoaren kontra, etab.

Ikuspuntu demokratikoago batetik heldu behar zaio Nazioarteko Merkataritzari, aurre neurriak hartu ahal izateko. Merkataritzaren Munduko Erakundeak errespetatu egin behar du Giza Eskubideen gaineko Ituna, baita Biodibertsitateari nahiz Aldaketa Klimatikoei buruzkoak ere. Gure ustez, aldaketak proposatu behar dira arlo horretako arauetan eta politikagintzan, gizartearendako desiragarriak diren xedeak sustatzeko, hala nola, giza eskubideen nahiz eskubide sozialen babesa, ingurumena eta biodibertsitatea, osasuna nahiz ongizatea, kultura eta garapen bidean diren herriekiko konpromiso bereziak.